



Bergaran, 2023eko urtarrilaren 31an

**Ehundu egitasmoa garatu eta lankidetz
publiko-komunitarioan oinarritutako proiektuak
sustatzeko**

ELKARLAN HITZARMENA

BILDU DIRA

Gorka Artola Alberdi jauna, NA 72581389-E duena eta Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan, P2007900J zenbakia duena eta M^a Concepción Ugalde Izeta NA 15954776-K duena, udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Maddi June Aspiazu Iturbe andrea, NA 44344548L duena eta Ehundu-erlaldaketa sozialerako elkarteko elkartearen lehendakaria, helbide soziala Mizpildi kalea 2.zkan, 20570 Bergara (Gipuzkoa) eta IFZ zenbakia G72941255 duen aipatutako elkartearen ordezkartzan.

Irune Cano Ormazabal andrea, NA 44167612-E duena eta Olatukoop Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea Sustatzeko Sarea elkarteko lehendakaria, helbide soziala Pinudi plaza zb.1 7-1, 20.0001 Donostia (Gipuzkoa) eta IFZ zenbakia G75137521 duen aipatutako elkartearen ordezkartzan.

Nagore Ipiña Larrañaga andrea, NA 44.330.259-J duena eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (aurrerantzean, MU-HUHEZI) dekanoa, helbide soziala Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa) eta IFZ zenbakia F20079497 duen MU-HUHEZIn ordezkartzan.

Elena Herrarte Letona andrea, NA 72.581.713-S duena eta Debagoiena 2030 Garapen Iraunkorrerako Sarearen (aurrerantzean D2030) koordinatzaile nagusia.

Bost aldeek hitzarmen honetan elkar behartzeko ahalmena aitortu diote elkarri eta

ADIERAZI DUTE

Elkarlanerako eta lankidetz publiko-komunitarioa landuko denaren akordioa berresten dutela eta 2021 eta 2022an ekindako bideari jarraipena emateko borondatea adierazi Bergarako herriaren beharrak lankidetz publiko komunitarioan oinarrituta eta tokikotasunetik abiatuta proiektu eta egitura komunitario bidez asetzeko markoaren baitan lanean jarduteko.

Azken urteetan aldaketa konstanteek eta ziurgabetasunak zeharkatzen ditu bai herritarron bizitzak eta baita gizartea bera ere. Euskal gizarteak inoiz ikusi eta bizi gabeko erronken

aurrean gaude. Mundua abiadura bizian aldatzen ari da, eta horrek gure herrian ere nabarmen eragiten du. Gure herriak, sendo eta luze irauteko egitura kontsolidatuak behar ditu, lurraldeko beharriak eta lurraldeko erronkei lurraldetik erantzun egitura komunitario eta kooperatiboak behar ditugu. Tokian tokiko eragile komunitarioak, eragile kooperatiboak, zibilak eta publikoak saretuko dituztenak eta burujabetza ezberdinak lantzeko eta antolatzeko baliagarri izango direnak: Elikaduran, energian, kulturean, etxebizitzan, teknologiatan, biodibertsitatean...

Beti ere zaugarriek, ume eta helduenek zein herri bizigarri izateko herriek duten funtzio hezitzailea aldarrikatuz eta praktikatu.

Gauzak horrela, honako klausulak dituen hitzarmena adostu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Ardatzak eta lan ildoak.

Bost aldeek hitzarmenaren xede komuna betetzeko eta hasitako bideari jarraipena emateko hitzarmen honetan bakoitzarentzako zehazten diren betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Egitasmoak honako ardatz orokor hauek izango ditu:

- Herritarren beharrak identifikatzea, eta hauek proiektuen bidez eta egitura komunitarioen bidez, elkarlan publiko-komunitarioen praktiken bidez gauzatzea, udal eskumeneko gaiak izanda udalari erabaki eta gauzatzea ez badagokio.
- Herri eragile eta norbanakoendako formazio eta sarete ekintzak antolatu eta sustatzea.
- Proiektu eta gai ezberdinen bueltako ekintza espezifikoak proposatu eta garatzea.
- Hezkuntza aktiboa egitea Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat datozen erronken inguruan.
- Proiektu eta ekintzailtza sozial komunitarioko proiektu berrien identifikazio eta sustapena zein bidelaguntza eskaini eta bideratzea.
- Aholkularitza eta zerbitzua ematea honako gaietan: energia, elikadura burujabetza, arrazakeria, ekintzailtza sozialean...
- Herritar eta eragileekin elkarlana sustatzeko tresnak, egiturak eta espazioak sortu eta bermatzea.

Lan ildo zehatzei dagokienez, orain arteko proiektuen lankidetzak publiko-komunitarioaren markoaren jarraipena emateaz gain lankidetzak horretan oinarritutako proiektuak sustatuko dira "Ehundu eraldaketa sozialerako" bulegotik. Honako ildo hauei helduko zaie 2023 urtean, besteak beste:

- **Ehundu- eraldaketa sozialeko bulegoa.** Ehundu elkarteari dagokio Mizpildi 2ko Ehundu egitasmoaren bulegoko zerbitzuak eskaini eta proiektuak sustatu eta dinamizatzea. Lan ildo berrien sustapena, beti ere herritar eta eragileekin lankidetzan. Ekintzailtza sozialean oinarritutako proiektu ekonomiko burujabetei aholkularitza eta bidelaguntzak eskaintzea.



- **Energiaren arloa.** Energia berriztagarrien komunitateari dagokionez, Berener Koop. Elkartea martxan da eta hau aurrera ateratzeko lankidetzak markoa eratu da. Bergarako Udalak, ahal duen neurrian, kooperatibaren xedea betetzen lagunduko du eta baita laguntza teknikoa eman ere. Horretarako, arduradun politiko eta teknikoek Berenerren talde sustatzailearekin batera egingo dute lan, eta kooperatibaren helburuekin bat datozen proiektuak, ahal duen neurrian, sustatuko ditu. Ehunduk proiektua gizarteratzea izango du ardura eta baita arloko beste ekimen batzuekin zein herriko beste eragile batzuekin saretzearen ardura ere.

Olatukoopek Euskal Herri mailan zein beste lurralde batzuetako energia komunitatearen bidelaguntza eta loturak egingo ditu beste esperientziaz batzuekin.

DBG20230 sareak eskualde mailako saretzea eta proiektu zein prototipoetako esperientziak partekatu eta elkarren osagarritasunak bilatzeko ardura izango du eta horiek Bergaran lur hartzeko aukerak aztertzea zein Bergaran sortutako ekimenaren alderdiak beste herri batzuetan konpartitzeko ardura izango du. HUHEZI- MUTik kooperatibaren gestio eta eraketa prozesuaren lanak egin eta izaerari lotutakoak lagundu eta bideratuko dira.

- **Elikadura burujabetza.** Bergaran elikadura burujabetzara bidean pausuak ematea da helburua, hainbat alorretan eraginez (kontsumoa, ekoizpena, banaketa...). Horretarako, inplikaturako eragileekin espazio partekatuak sortu dira (Elikadura Mahaia, esaterako). Ehundu arduratuko da Elikadura Mahaiaren dinamizazioaz eta jarraipenaz. Udalak, orain arte bezala laguntza teknikoa eskaintzeaz gain, elikadura burujabetzara begirako politika proaktiboak aztertu eta egoki irizitako proiektuak aurrera eramango ditu. Lanki MUK Elikadura Mahaitik sustatuko diren hainbat ekimenetan aholkularitza emango du.
- **Teknologia burujabetza.** Auzowan elkartea zein Bergarako Udalarekin elkarlanean 2023an teknologia burujabetzara begirako sare propioa eta burujabe garatzeko helburuz Ehundutik dinamizazioa eta jarraipena egingo da eta Olatukoopetik zein Lanki Mu elkartetik bidelaguntza espezifikoa zein egitura komunitarioaren eraketari begirako akonpainamendua egingo da. Udalak lankidetzan aritzeko konpromisoa hartzen du, eta helburu horretara begirako beharrezko pausuak emango ditu.

BIGARRENA.- Betebeharrak, ardurak eta finantziario kopuruak.

Bost aldeek honako betebeharrak edota ardura zehatzak izango dituzte:

Bergarako Udala:

- Ehundu eraldaketa sozialaren bulegoa hornituko du, eta lokalaren mantentze gastuak bere gain hartuko ditu, baita garbiketa, argindarra eta telefono gastuak ere.

Gastu horiek bere gain hartzeaz gain, 2023an 50.000 euro urteko bideratuko ditu EHUNDU herri egitasmoa eta eraldaketa sozialeko bulegotik landu eta bideratuko diren lanak betetzeko.

Diru horrekin diruz lagunduko dira, Ehundu elkarteak, Olatukoop eta MU-HUHEZIK bere gain hartzen dituzten betebeharrekin eragindako gastuak.

2023an Bergarako Udalak hitzarmen honen bidez bideratuko dituen dirulaguntza zehatzak honakoak izango dira:

- Ehundu Elkarteari: 41.500 euro.
- Olatukoop Elkarteari: 4200 euro.
- MU-HUHEZI Kooperatibari: 4200 euro.

Dirulaguntzak ordaintzeko moduari dagokionez, 2023 urtean zehar horrela egingo dela adostu da:

Ehunduri ordainketak, hilabetero egingo zaizkio hilabete bukaeran, eta konturakoak (a cuenta) izango dira. Lehen ordainketa 2023ko urtarril bukaeran egingo da behin hitzarmena sinatu ostean. Hilero koordinazio mahaia egingo da eta hilabeteko deskargua egiteko ardura izango du Ehunduk.

Ekaina- uztailean jarraipen balorazioa egingo da sinatzaileen artean eta ekitaldi erdiko txosten memoria bat helaraziko da koordinazio mahaira.

2023ko abenduan behin azken txosten eta emaitzak entregatu eta emandako dirulaguntza justifikatu beharko dira eta modu honetan 2024ko hitzarmena berriztuko da aldeek egoki ikusiz gero.

Olatukoop eta HUHEZI-ren ordainketak aldiz bi zatitan egingo dira. Lehenengo ordainketa 2023ko urtarrian hitzarmena sinatu ondoren eta ordainketa konturakoa izango da; eta bigarrena 2023ko abenduan dirulaguntza justifikatutakoan.

Ehundu Elkartearen zereginak eta konpromisoak

- Mizpildi 2 kalean kokatutako Eraldaketa sozialaren bulegoaren koordinazioa, gidaritza eta zerbitzuak eskaintzea. Bertatik emango diren zerbitzu, hitzaldi eta formazioak antolatzeke eta kudeatzeko ardura hartzea. Bergararren beharren identifikazioa egin eta prozesu-proiektu berriak aktibatzeke testuinguruak sortzeke formazio eta sarete saioak egitea eta teknikariei zein lan-ildoetarako bidelaguntza egitea.

Honakoak izango dira bertatik eskainiko diren zerbitzuak:

- Energia gaitan aholkularitza. Energia-Laguntzaile eta aholkularitza eskainiko da. POWERPOOR-en sarearen parte izango da bulegoa eta pobrezia energetikoari aurre egiteko lanabesa izango da.
- Ekintzailetza soziala. Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako proiektuak bideratzeko eta sustatzeko espazioa izango da. Bidelaguntza emango zaie proiektuei.
- Formazioa eta hitzaldi zikloak. Beharrak erantzuteke eta herritarrak ahalduntzeke saioak antolatuko dira.



Bergarako
Udala

- Informazio gunea. Lan-ildoen informazioa eta proiektuen saretzea sustatuko da (Kukubaso, Garau, Ereindajan...)-

Horretarako eskainiko ditu 1696 ordu urtean.

Entregagaiak:

Urte hasieran, 2023eko ekintza planaren txostena eta komunikazio plana. Ekintza planaren deskargoa eta egitasmoaren zehaztapena jasotzen duen txostena.

2023ko abenduan memoria txosten kualitatibo eta kuantitatiboa. Eta sortutako dokumentazioa (ekintza plana, bulegoaren jardunaren memoria eta gobernantza eredu). Euskaraz eta digitalean entregatuko dira idatziz txostenak eta dagozkien euskarrietan.

Bergarako udalak Ehundu egitasmoari utzitako lokala erabili ahal izango da bertatik Debagoienako SOS arrazakeriarekin migratzaileei aholkularitza zerbitzua eskaintzeko.

OLATUKOOP-ek:

Indarrean dauden lan-ildoei eta sortuko diren berriei, norbanakoei zein proiektu kolektiboak abiaraztea nahi duten herritarrei bidelaguntza egitea. Era berean, Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzaileko irakaspen, proiektu eta esperientziak herriratzea. Finean, bidelaguntza eta aholkularitza eskaintzea proiektu burujabe eta komunitarioen sustapenean duten eskarmentua baliatuz.

Horretarako, proiektuen bidelaguntzari lotutako 100 ordu urtean.

D2030:

Eskualde mailan garatzen diharduten eraldaketa prozesua Ehundu eraldaketa sozialaren bulegoarekin konektatzea izango da egiteko nagusia, lankidetzaren sarearen jarduna Bergarara gerturatzeko aukerak sustatuz. Bide horretan, arlo ezberdinetan garatzen diharduten prozesu, azterketa eta proiektuen zein metodologiengatik inguruko informazioa partekatuko du Ehunduko eraldaketa sozialaren bulegoarekin, eta bulegoaren jardunaren jarraipen zuzena egingo du, elkarlanerako aukerak identifikatu eta lantzeko helburuz.

Elkarlana eta saretzea izango dira Debagoiena 2030ekin jarduteko moduak ardazteko elementuak, ez dute ordainsaririk jasoko.

MU-HUHEZIKO Lanki Ikertegiak:

Formazio prozesuen, lan metodologiengatik eta sistematizazio eta jasoketa lanaren aholkularitza egiteko ardura izango du alde batetik, eta bestetik, ekimen komunitarioei lotutako gobernantza eta eraketari lotutako gaietan bidelaguntzeko ardura. Era berean, metodologiei lotutako beharrezko diren euskarri eta materialak garatzeko ardura izango du.

Ikerlari baten 100 ordu urteko (Urtarrila – abendua).

HIRUGARRENA. - Euskararen ezagutza eta erabilera.

Ehunduk, Olatukoop-ek eta MU-HUHEZIK hitzarmen honetan jasotako betebeharrak burutzeko, Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana mantendu beharko dute. Beraz, proiektu honetan parte hartzen duten Ehundu-ko Olatukoop-eko eta MU-HUHEZIKo langileei Bergarako Udalari eskatzen zaizkion baldintzen antzekoak betetzen ditu, euskara mailari dagokionez. Hori dela eta, kontuan izanda eman beharreko zerbitzuen izaera, euskarako C1 maila badutela egiaztatzen dute.

Proiektua garatzen hasi aurretik, eragileok egiaztatzen dute zerbitzua emango duten pertsonak dagokion gaitasun linguistikoa daukatela.

Era berean, proiektua bukatu aurretik langile berriak hastekotan, horiek ere euskara egokia izango dutela ziurtatuko da.

Herritarrekin, euskaraz hitz egitea lehenetsiko da, kontuan izanda herritarren euren hizkuntza eskubideak.

Egitasmoan parte hartzen duten Ehundu-erlaldaketa sozialeko elkarteak, Olatukoop eta MU-HUEZIK adostu dute proiektu hau burutzeko bakoitzak jartzen dituen langileei dagokienez, bere gain hartzen dutela edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebeharrak hartuko dituzte bere gain: ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio- ordainketa barne–; eta baita enpleguaren eta enplegatzailearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainerako eskubide eta obligazio guztiak ere.

LAUGARRENA.- Emandako dirulaguntzaren justifikazioa.

Ehundu-k, Olatukoop-ek eta baita MU-HUHEZIK ere, 2023ko abenduan honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udalak emandako dirulaguntza justifikatzeko:

1.- Emaizta ekonomikoaren memoria, hau da, zerrenda sailkatu bat, jardueraren gastuak eta inbertsioak jasoz, eta bertan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan, era berean, zehaztu egin beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan dituzten beste diru-sarrera edo dirulaguntzak, adierazita bakoitza zenbatekoa izan den eta nondik etorri den. Memoria erreala dela adierazten duen zinpeko aitortpena gehituko zaio, erakundeek sinatua.

2.- Faktura, agiri edo erreziboen kopiak eta horien ordainketa-agirienak ere bai.

3.- Egitasmo honi lotutako edozein eragilek jasotako dirulaguntzak aitortuko dute. Jasotako beste dirulaguntzen agiriak edo, dirulaguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitortpena.

BOSGARRENA.- Batzordeak eta antolaketa.

Prozesua gidatu eta koordinatzeko Koordinazio Taldea sortuko da, eta honakoa izango da bere osaketa:

- Bergarako Udala: 1 ordezkari
- Ehundu: 1 ordezkari
- Olatukoop: 1 ordezkari



Begarako
Udala

- HUHEZI-Lanki: 1 ordezkari
- D2030: 1 ordezkari

Koordinazio Taldearen funtzioak honakoak izango dira:

- Erabaki gune izatea, baldin eta udal eskumeneko gaiak izanda Udalari erabakitzea ez badagokio.
- Lankidetzan publiko-komunitarioan sortzen diren oztopoak gainditzeko espazio eta lanabesa.
- Hitzarmenean parte hartzen duten eragileen arteko koordinazio gune izatea.
- Plangintzan onartu, ardurak banatu eta jarraipena egitea.
- Loturak egin arlo eta proiektuen artean.
- Lankidetzan publiko-komunitarioko proiektua eta arlo berrien lanketa.
- Emaizak ekoitzi.
- Komunikazio planaren irizpideak adostu.

Ohiko bileren maiztasuna: Hilean behin.

Horrez gain talde operatibo bat egongo da eta talde horrelako kide izango dira gutxienez ehundu elkarteko ordezkari bat eta udaleko ordezkari politiko bat.

Talde operatiboaren funtzioak:

Eguneroko erabakiak eta xehetasunak lotzeko ardura izango du, eta honako funtzio zehatzak izango ditu:

- Komunikazioa.
- Exekuzioa.
- Udal teknikariek lotura.
- Agenda kontrola.

Ohiko bileren maiztasuna: Astean behin

Eragin ekonomikoa izango duten erabakiak hartzeko (finantzazio gehigarria behar duten ekimenak abian jartzeko, esaterako), Bergarako Udalaren oniritzia beharko da.

SEIGARRENA.- EZAGUTZAREN JABETZA KOLEKTIBOA

Ehunduren bueltan sortuz joango den ezagutzaren izaera irekia eta kolektiboa da. Hitzarmen honetan erregulatzen den elkarlan anitzetan sortzen den ezagutza hitzarmen honetara atxikitako eragile guztiena, kolektiboa, izango da; ez da eredu klasikoagotan bezala, alde bakarrarena izango, finantzatzailearena adibidez.

Beraz, eragile bakoitzak elkarlan publiko-komunitarioan egingo duen ekarpena jabetza kolektiboan uzten du eta aldean ekarpenen baturatik sortuko den ezagutza kolektiboa izango da. Eta horrela adieraziko da prozesuaren osotasunari edo edozein azpi-prozesuri buruz sortutako material edo argitalpenetan, egitasmoan inplikaturiko eragile batek edo gehiagok sortutakoa bada ere.

Alde guztien artean adostuko dute jabetza kolektiboa adierazteko bidea zein den. Era berean, hitzarmen honetako edozein eragilek ezagutza hori bere aldetik ustiatzeko aukera izango du baina jardunbide horren muga honakoa da: ezagutza kolektibo horrekin egingo dena ezingo dela inolaz ere esparru kolaboratibo honen aurka egin.

ZAZPIGARRENA.- Egitasmoan sortutako ezagutzaren erabilera.

Ezinbestekoa izango da elkarlan publiko-komunitarioaren testuinguruan sortutako ezagutza erabiltzen den bakoitzean egiletza aitortzea Koordinazio taldeak zehaztutakoaren arabera.

ZORTZIGARRENA.- Beste dirulaguntza batzuekin bateratasuna. Egitasmo hau burutzeko beste diru-laguntza lortzen badira, horrek ez du suposatuko udalaren aportazioa gutxitzea. Bergarako Udala arduratuko da diru-laguntza emanez gero, diru-laguntzaren justifikaziorako dokumentuak aurkezteaz baina dokumentazio hori prestatzen 5 aldeak lagunduko dute.

BEDERATZIGARRENA.- Indarraldia

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik 2023ko abenduaren bukaerara arte. Hitzarmenean aipatutakoak betetzen badira beste urte bete luzatzeko aukera egongo da, 5 aldeek horrela ikusten badute. Luzatzeko erabakia hartu beharko da 2023ko abenduaren 31a baino lehen.

HAMARGARRENA.- Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak

Hitzarmen hau amaituko da bere xede diren ekintzak burutu badira edo suntsiarazteko arrazoiak baleude.

Honako hauek izango dira suntsiarazteko arrazoiak:

- Hitzarmenaren iraupen-epea amaituko balitz, luzatzeko erabakirik adostu gabe.
- Alde guztien aho batezko akordioa.
- Aldeetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- Deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judizialagatik legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

HAMAIKAGARRENA.- Datu pertsonalen tratamendua.

Proiektu hau burutzean lortutako datu pertsonalak, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari eta horren garapen-araudiari jarraituz kudeatuko dira eta soilik proiektu hau burutzeko erabiliko dira, eta amaitzean ezabatu egingo dira.

HAMABIGARRENA.- Dirulaguntzaren araubidea.

Dirulaguntzari dagokionean, hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Diru-ekarpenak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Estatuko Legea, lege hori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Bergarako dirulaguntzen ordenantza orokorra, eta Bergarako Aurrekontuetako Udal Araua.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, esku hartzen duten erakundeek hitzarmen hau sinatu dute, nik, idazkariak, guztia ziurtatzen dudalarik



Begarako
Udala

Sinadurak:

GORKA
ARTOLA
ALBERDI -
72581398E

Digitalki sinatuta
norenandik: GORKA
ARTOLA ALBERDI -
72581398E
Data: 2023.02.10
15:45:40 +01'00'

ALKATEA
Gorka Artola

MARIA
CONCEPCI
ON
UGALDE
ICETA -
15954776K

Digitalki sinatuta
norenandik:
MARIA
CONCEPCION
UGALDE ICETA -
15954776K
Data: 2023.02.01
11:00:08 +01'00'

IDAZKARIA
Kontxi Ugalde

MADDI
JUNE
ASPIAZU
ITURBE

Firmado
digitalmente por
MADDI JUNE
ASPIAZU ITURBE
Fecha: 2023.02.22
08:40:41 +01'00'

EHUNDU
Maddi June Aspiazu

OLATUKOOP
Irene Cano

44167612E
IRUNE
CANO (R:
G75137521)

Digitalki sinatuta
norenandik:
44167612E IRUNE
CANO (R:
G75137521)
Data: 2023.02.22
14:18:50 +01'00'

MU - HUEZI
Nagore Ipiña

44330259J NAGORE
IPIÑA (R: F20079497)

Firmado
digitalmente por
44330259J NAGORE
IPIÑA (R: F20079497)
Fecha: 2023.02.23
13:41:31 +01'00'

DG2030
Elena Herrarte

72581713-5

